

# Euskal Kantagintza Berriaren aitzindariak

Bakoitzari berea eman behar zaio, eta egia den arren Ez Dok Amairu taldeak bultzada handia eman ziola Euskal Kantagintza Berriari eta oso ezagun egin zela, hura baino lehenago kantuan aritutakoak ere ezin dira ahaztu, haienak izan baitziren euskal kantagintza berriranzko lehen urratsak.

- Nemesio Etxaniz

Idazlea eta olerkaria izan zen Nemesio Etxaniz apaiza (Azkoitia 1899 - Donostia 1982). Baina horren guztiaren gainetik, kultur eragile sutsua izan zen. Antzerkigintzan zebilela, euskal kantagintzan hutsune handia zegoela antzeman zuen Nemesiok. Hala, 1951n *Kanta Kantari* liburuxka argitaratu zuen ia klandestinitatean. Gerra ostean egindako kantak bildu zituen lan horretan eta abeslari eta taldeen eskura jarri zituen kanta berriak; *Anttoni eta Antton*, *Solferinoko itsua* eta *Alargunarena*, besteak beste.

Kanten bilketan aritzeaz gain, euskarazko abestiak ere egin zituen. Izan ere, erdarazko kantak gehiegi nagusitzen ari zirela ohartu eta beldur zen, ez ote zen erdara gazteen jabe egingo. Gainera, garai hartan erritmo berri asko zeuden modan (*cha-cha-cha*, *pasodoblea*, *tangoa*...). Horregatik, sortu zituen doinu berri haietako askok erritmo berri haiek zituzten oinarrian, gazteei erakargarriagoak irudituko zitzaizkielakoan. Ezinbestekoa iruditzen zitzaion erritmoaren jatorria alde batera utzita, abestien hitzak euskaraz izatea, kantuek mitinek baino indar handiagoa zutela uste zuelako. Hain zuzen ere, horrexegatik, alegia, euskara kanpoko erritmoekin nahasteagatik, kritika ugari jaso zituen, zenbaiten ustez, euskara narrastu besterik ez baitzuen egiten.

1967an beste liburu bat argitaratu zuen, aurrekoa baino mardulagoa *Lur berri bila*. Bertan, berak egindako abestiak eta kantu zaharrak bildu zituen, kontakizun, ipuin eta olerkiekin batera.

Garai hartan kritika gaizto asko jaso zituzten hasiberri ziren kantariak, Nemesiok ere kritikak egiten zituen, baina gozoak izan ohi ziren bere kritikak, eraikitzaileak. Esate

baterako, hala esan zuen behin kantuan hasten ari ziren gazte haien inguruan: “Letra asko arlote samarrak dira, musikarekin ondo josi gabeak. Ala ere, erdarazkoak baiño obe dira guretzat. Eta akats au konpontzeko, olerkari eta kantarien arteko batasun bat lortzea ona izango litzateke, noski. Baiña bitartean, segi aurrera, gazte maiteok!”. Beti eman zien laguntza gazteei eta euren lanei. Hala, Ez Dok Amairu sortu zenean ere, laguntza eman zion mugimenduari, nahiz eta bultzatzaileak ezberdinak ziren adin eta giro aldetik. Antza, gazteek ere bere laguntza eskertu egin zuten, 1966an Ez Dok Amairuko kideek omenaldia eskaini baitzioten.

#### ▪ Soroak eta Ainarak

Bilbon dute jatorria Soroak eta Ainarak taldeek, eta familia berean gainera, Robles-Arangiztarrenean, hain zuzen ere. Lau anaik osatzen zuten Soroak taldea: Alatz, Ugutz, Iker eta Irkusek; beren lau arrebak, berriz, Ainarak taldea: Edurne, Garbiñe, Gizane eta Maitanek. Denek batera abesten zutenean, Zortziko taldea osatzen zuten. Gitarra izan zuten kantu lagun 1958an hasi zirenetik.

Bilbon hasi zuten euren ibilbidea, baina Iparraldean ere arrakasta handia izan zuten. Hala ere, kritika gogor asko entzun behar izan zituzten, euskal kantu zahar asko eraberrituta kantatzen zituztelako eta atzerriko abestiak euskaratu eta plazaratzen zituztelako. Nemesio Etxanizi bezala, familia honetako kantariei ere euskara narrastea egotzen zieten etengabe. Antza, garai hartarako berriegia eta arrotza zen euren kantatzeko era. Noizbait gitarra espainiarra erabiltzea ere leporatu izan zieten.

1960an Beskoitzera alde egin behar izan zuten familiako kide batzuek eta aldizka elkartzen ziren arren, sekula ez zuten Hegoaldean berriz jo. Soroak taldeak kaleratutako diskoa da Robles-Arangiztarren jardunaren lekuko bakarra, Ainarak-en izenean edo, denek batera Zortziko bezala, ez baitzuten ezer argitaratu.

Ezin esan gabe geratu, familia berekoa zela Estibalitz Robles-Arangiz, *Estitxu*, ere. Senideen artean gazteena izaki, hamaikagarrena, bere anai-arrebak baino beranduago hasi zen kantuan. Hala ere, bera izan zen, kantagintzan ibilbide luzeena egin

zuen, argitaratutako sei diskoak dira horren lekuko. Euskal Herrian eta atzerrian aritu zen kantuan, zentsurak utzi zionean behintzat.

- **Mixel Labeguerie**

Mixel Labeguerie 1921ean jaio zen Uztaritzen eta 1980an zendu Akitaniako Tolosan. Euskal Kantagintza Berriaren aita deitu izan zaio, bera izan baitzen askoren ustetan eta artean berak ere ez zekiela, mugimendu haren lehendabiziko urratsak eman zituen.

Medikua zen lanbidez eta I. Munduko Gerraren ostean Kanboko ospitalean aritu zen lanean. Horretaz gain, kantagintzan hasi eta handik gutxira, 1964an eta politikagintzan sartu zen buru-belarri. Hala, 1980ra arte zenbait eginkizun izan zituen alor horretan: Frantziako Asanblada Nazionaleko diputatu kristau-demokrata, Ezpeletako kantonamenduko Kontseilari Nagusi, Kanboko alkate eta Frantziako senatari. Horrez gain, 1963an Enbata mugimendua sortu zuen hainbat lagun euskaltzalerekin batera. Europa barneratuaren barnean zazpi probintzia euskaldunen federazioa babestea, Frantzian euskal departamentua sortzea eta euskara hizkuntza ofizial moduan onartzea zituen xede nagusi mugimendu hark. Hala ere, zenbait abertzalek, politikan zuen jarduna kritikatu egin zuen Frantziako sisteman sartuta zegoela medio.

Politikaren alorrean egindako lana alde batera utzita eta kantagintzan izandako ibilbidea aztertuta, ukazina dirudi bere lana aipatzekoa eta azpimarratzekoa izan zela. Gerora izango zuen garrantziaz ohartu gabe, gazte zela, usadio zaharreko kantak eta dantzak berreskuratzeko talde bat sortu zuen bere sorterrian. Gazte zelarik txistua jotzen ikasi zuen, nahiz eta gitarra izango zen bere kantuen laguntzaile fin. Hastapenetan, Sokoako erretore zen Aita Lartzabalen testuei musika jartzen zien lagunartean kantatu ahal izateko. Halaxe hasi zen Mixel kantari.

Kantatzeko era berri bati hasiera eman ziola esaten da, bertso eta koral moldetik urrun. Halaxe deskribatu zuen Xabier Letek Labeguerieren lana Jakin aldizkariko 4. zenbakian (1977):

“Euskal kantaren lehen urratsetan Mixel Labeguerie dago [...] Labeguerieren diskoek, batez ere lehenak, izugarritzko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoia-aren estilo aldaketan: gitarra xozilez lagunduriko kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arruntez kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien amameramendu eta sofistika-zio guztietatik urrun”.

Xabier Letek aipatzen duen estilo-aldaketa hori kritika-arrazoi bihurtu zen era berean. Izan ere, ordura arte entzuten ziren kantu zaharrak gitarra baten laguntzaz kantatzea askorentzat eskandalu baitzen.

Herriaz, mendiez, itsasoaz, animaliez eta halakoez kantatzen zuen Mixelek. Baina unerik gorenatariko bat 1961ean Amozko trinkete-ean lehen aldiz *Gazteri berria* abestu zuenean bizitu zuen. Asmoa ez zen ordura arte bezala naturari abestea; itxuraz, lo zegoen gazteriari dei egitea baizik. Halako kantuekin abertzaletasuna pizten hasi zen Mixel.

Eragin handia izan zuen kantaldi hark baita, urte berean kaleratu zuen diskoak ere; lehendabizikoa. Aitzitik ez zuen lan xamurra izan diskoak saltzen; izan ere, *Mixel Labeguerie: kantu berritzaile eta politika gizona* liburuan (Mixel Itzaina, 1999) esaten denaren arabera, Mixelen lehen disko hark azalean zekarren ikurrina zela medio, dendari-ek ez zuten saldu nahi. Beraz, Ximun Haranek Hendaiako bere farmazian saldu zituen. Zailtasunak zailtasun, hedapen handia izan zuten Mixel Labeguerieren lehen kanta haiek, hala Iparraldean nola Hegoaldean, azken honetan ezkutuan.